



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abuztuaren 1a

5. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Abuztua gaitzeko erabakia (2. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—11-23/DFL-00003. 3/2023 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen dituena. Akats zuzenketa (3. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **Abuztua gaitzeko erabakia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko uztailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 82. artikularekin bat, aurtengo abuztua gaitzea, egin beharreko parlamentu-bilerak eta -jarduerak egin daitezen, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren inbestidura prozesua burutu arte.

**2.** Erregelamenduaren 195. artikuluan aurreikusitako epea, Nafarroako Foru Komunitateko

Lehendakaritzarako hautagaia proposatzekoa, 2023ko abuztuaren 22ra arte luzatzea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**4.** Erabaki hau hurrengoei igortzea: Nafarroako Gobernuari, talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei eta Legebiltzarreko Zerbitzuei.

Iruñean, 2023ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**11-23/DFL-00003. 3/2023 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen dituen.**

**AKATS ZUZENKETA**

Ikusirik akats bat egin dela Tributu Harmonizazioari buruzko ekainaren 21eko 3/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren testuan (legegintzako foru dekretu horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatu dira), zeina argitara eman baitzen 2023ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, uztailaren 18koan, bidezkoa da behar den zuzenketa egitea:

**Bigarren artikulua.** Zerga Bereziei buruzko Foru Legea aldatzea.

Honako hau dioen tokian:

“Hamar. 27. artikulua, 3. eta 5. apartatuetako lehenengo paragrafoa:”

Honako hau behar du:

“Hamar. 26. artikulua, 3. eta 5. apartatuetako lehenengo paragrafoa:”

Iruñean, 2023ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

